



ITZALDE ABESBATZA



Historia:

1987. urtean Andoni Armendia Diaz zuzendariaren gidaritzapean sortutako musika eta ahots taldea da (gaur egun ere bera da zuzendari). Okondo eta Zuhatza (Araba) herrietako musika zaletasunaren ondorioz sortu zen.

Bi herri horietako musika eskola da musikaren kultuagatiko ideala bizirik mantentzen duena, eta bere helburu nagusia da Aiar Haranean estilo eta garai guztietako musika korala sustatzea, irakastea eta zabaltzea, batez ere euskaraz, musika kultuaren eredu gisa. Horretarako, errepertorio zabala eta askotarikoa eskaintzen du, Errenazimendutik hasi eta Barrokoko nahiz XXI. mendeko musika korala jasoz.

Une honetan 25 ahots daude, eta normalean 25 kontzertu emate dituzte urtean zehar.

Ikusi

Kexaako kultur astean izan ohi da lehenengoa, eta inguruko udaberriko jaialdia antolatzen du beste abesbatza batzuekin batera. Halaber, Aiarako musika hamabostaldian ere parte hartzen du, eta Gasteizko Araba aretoko ostiral koraletan arrakasta izaten du.

Arabako Abesbatzen Federazioko kide da eta Aldundiarekin parte hartzen du Ereiteneko zirkuituetan, probintziako hainbat herritan abestuz. Horretaz gain, Arabako Abesbatzen Egunean eta Gasteizko San Prudentzio erretretan parte hartzen du Arabako abesbatzekin batera.

Estibalizko Santutegiko (Araba) esparru zorrotzean ere aritzen da. 1997. urtean, Bizkaiko beste abesbatza batzuekin batera, Guridiren Eusko Irudiak eta Verdiren "Va Pensiero" interpretatu zituen, Bilboko udal orkestrak lagunduta eta Jesus Mari Bilbaoren zuzendaritzapean.

Bizkaiarekin muga egiten dutenez, 1990. urtean kontzertu bat eman zuten Ziortzako monasterioan, eta 1991n Bilboko Begoñako basilikan.

Urte hartan bertan, meza berria eman zuten Barambioko Garrastatxu santutegian eta ETBk grabatu zuen. 1997an errepikatu egin zuten Laudion eta Urduñako Andre Maria parrokian. 1999an, berriz, Larrinbeko Santiago parrokian (Araba) bi aldiz elkarren segidan.

1994an kontzertu bat eman zuten Segovian, 1997an Kantabrian eta 1998an Iruñean Virgen del Río abesbatzarekin batera. 1997an, Torreciudadeko santutegian (Huesca) aritu zen; Torreciudadeko santutegian (Huesca) meza berria eman ondoren, kontzertua eskaini zuen, eta entzule fin asko izan zituen.

1999an Abesbatzen Egunean parte hartzeko aukeratu zuten probintziako abesbatzen artean; Orioko (Gipuzkoa) Salatxo abesbatzak antolatu zuen eta Orion bertan ospatu zen. Bizkaiko, Nafarroako, Lapurdiko eta Zuberoako abesbatzek ere hartu zuten parte.

2000. urtean Gabon-kanta kontzertuak eman zituen Gasteizen eta Sopuertan. Ekainean meza berria eman zuten Lourdeseko Basilikan (Frantzia) eta biharamunean, meza berria eman ondoren, kontzertua eskaini zuen Saint-Bertrand de Comminges-eko katedralean (Frantzia). Katedral ospetsu horretan, hain zuzen, kalitate handiko musika-lehiaketak egiten dira. Azaroan beste bi meza grabatu zituen ETBrentzat Okondon. Abenduan, Gabon-kanta kontzertuak emateaz gain, Laudioko (Araba) jaialdi batean parte hartu zuen Bilboko Coral de San Ignacio abesbatzarekin batera. Han izan ziren, halaber, Aiara Dantza Taldea eta txistu eta metalekin osatutako orkestra Jaialdi hori Amurrioko frontoian errepikatuko da eta arrakasta handia izango du.

2001eko ekainean San Mames estadioan eskainitako makro kontzertuan aritu zen Bilboren 700. urteurrena ospatzeko. Irailean, berriz, Huescara itzuli zen beste kontzertu bat emateko.

2002ko urtarrilean meza berria eman zuten Bilboko Begoñako basilikan, Jose María Escrivá de Balaguer dohatsuaren mendeurrena zela eta. Maiatzean bi kontzertu eman zituen Tolousen (Frantzia) eta irailean Torreciudadera (Huesca) bueltatu zen. Han meza berria eman zuten eta, ondoren, elkarren segidako bi egunetan kontzertuak eskaini zituen.

2003an, abenduaren 13 eta 14an hain zuzen, Advientos de Viena-n (Austria) parte hartu zuen; San Canisius-eko basilikan (Canisiuskirche) kontzertu bat eman zuten eta Vienako udaletxeko areto nagusian beste bat, aretoa guztiz bete zutelarik. Beste hainbat abesbatzek ere abestu zuten, besteak beste, Erresuma Batua, Alemania, Tirol eta Ukrainako abesbatzek.

2005eko aipagarriena Ghetary-ko (Frantzia, Iparralde) kontzertua eta Miranda Ebroko (Burgos) "Juan de Encina" Gabon-kanten III. Aste Korala izan ziren, azken horretan gonbidatu gisa aritu zelarik. 2006ko uztailaren 20an, Frantziako Bretainiako Saint-Quay-ko "ENTRE VOIX" izeneko bigarren jaialdian parte hartu zuen abesbatzak. Gainera, uztailaren 2an eliz musikako errepertorioa abestu zuen Pariseko Notre Dame-n eta 1.500 ikusle baino gehiago bertaratu ziren.

Urte hartan bertan CD bat eta DVD bat grabatu zituen Errenazimentuko eta Barrokoko musikarekin. Bigarren zatian, aldiz, euskal folkloreakin, bai gaztelaniaz, baita euskaraz ere.

2007ko irailean kontzertu bana eskaini zuen Manzanares eta Torra de Calatravan (Ciudad Real), Kristoren Kontsolamenduaren 400. urteurrena ospatzu.

Urte hartan bertan zein 2008an Derion ospatutako Txorierriko Gabon kanten XXII. Abesbatza Jaialdian parte hartzeko gonbidapena jaso zuen.

Eliz musikako kontzertu adierazgarrien artean nabarmentzekoak dira Gasteizko Karmeldarretan eta hirigune historikoko Domingotarretan emandakoak.

Atsekabe handiz aipatzen da Kexaako kontenplaziozkoen agur ofizial eta kanonikoa, historikoki benetan garrantzitsuak izan baitziren; izan ere, 630 urteren ondoren monasterioa utzi dute bokazio faltagatik.

Meza hunkigarria izan zen eta hainbat agintari bertaratu ziren.

Errepertorioa:

XV, XVI, XVII, XVIII, XIX, XX eta XXI. mendeetako polifonia.

Euskal folklorea.

Fitxa artistikoa:

Kideak: 24.

Zuzendaria: Andoni Armentia.

Fitxa teknikoa:

Elizak, zinemak, etab.

Cachea:

Hitzartu behar da.

Web orria:

www.itzaldeabesbatza.com.

Harremanetarako:**Zuzendaria:****Andoni Armentia Díaz**

La Ilana 20. 01377 Zuhatza-Aiara

Telefonoa eta faxa: 945-39 90 88

E-posta: andoniarmentia@yahoo.es

Presidentea:**Alberto Ibarra Garaogordobil**

Goikoetxea auzoa. 01409 Okondo (Araba)

Telefonoa: 945-89 80 24

E-posta: a.ibarra@telefonica.net

